



B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

Rachel L. Mellon Collection

MAIATZA 27/2017 – URTARRILA 25/2018

Cristóbal Balenciaga ezagutzea nire bizitzako poz berezietako bat izan zen. Oso adiskide mina izan nuen. Hamar urtez diseinatu zituen nire jantziak. Luxua eta sinpletasuna sentsibiltate sakonez biltzen zituen.

Haren gau-soinekoak eta berokiak zinez liluragarriak ziren. Eguneko diseinuak ezin hobeto egokitzen ziren bere bezeroen bizimodura. Horri esker, lorezaintzan lan egiten nuenean, nik liho-kotoizko blusa zabalak eta gona leunak nituen. Haren xarma, irribarrea eta diseinuan ematen zuen lana islatuta geratzen ziren haren presentzia lasaian.

Rachel L. Mellon

Rachel Lambert Mellon (1910–2014), Bunny izenarekin ezagutzen zena, Ipar Amerikako gizarteko xx. mendeko damarik handienetakoa izan zen. Mrs. Mellon oinordetzan dirutza itzela jasotakoa zen, filantropoa, arte-bildumagilea, lorategien diseinatzailea –besteak beste, Etxe Zuriko *Rose Garden* ospetsua diseinatu zuen–, Kennedytarren adiskide pertsonala, eta Paul Mellon banku-arloko handiki eta mezenas nabarmenaren emaztea; beraz, Balenciagak zituen bezeroen arketipoa osatzen zuen: diruduna, sentikorra eta eskusiboa.

Izan zuen bizitza paregabea, etengabe ibili zen edertasunaren bila; izan ere, edertasunez inguratzeaz gain, horren bilduma ere egiten zuen. Modu eklektikoan aurkitzen zuen edertasuna artelanetan, liburu arraroetan, harribitxietan, objektu baliotsuetan, lorategietan, giro zainduetan eta bere jantzietan bertan. Hain zuzen ere, hamar urtez baino gehiagoz, Balenciagak egin zizkion jantziak.

Bezero bikaina izateaz gain, Bunny Mellon jostunaren adiskide pertsonala ere izan zen, eta harreman horrek Bunnyrentzat egindako *Maison*-eko egokitzapenetan eta diseinu berezietan islatu zen. Balenciagak berak, erretiratu zenean, Hubert de Givenchyrengana transferitu zuen harreman hori.

Gaur egun, Balenciagak Mrs. Mellonentzat egindako sorkuntzetako asko Cristóbal Balenciaga Museoa de la Pera eta Igor Uria komisariokideen lankidetzan izan du, eta aipatutako funtseko aukeraketa zaindua aurkezten du jendaurrean, bai eta Balenciagaren goi-mailako jostuntzari buruzko irakurketa berria ere, dama paregabe horren iragazki pertsonalaren bitartez.

Hubert de Givenchyren zuzendaritzapean antolatutako *Rachel L. Mellon Collection* erakusketak Eloy Martínez de la Pera eta Igor Uria komisariokideen lankidetzan izan du, eta aipatutako funtseko aukeraketa zaindua aurkezten du jendaurrean, bai eta Balenciagaren goi-mailako jostuntzari buruzko irakurketa berria ere, dama paregabe horren iragazki pertsonalaren bitartez.